

### LEHENENGO EBAZKIZUNA.

Enpresa batean langileak hiru taldetan sailkatzen dira: tekinkoak, langile berezituak eta administratiboak. Ondoko taulan 1991. urteko langile-kopurua, hilabeteko batezbesteko soldata eta abenduko soldaten bariantza ematen dira langile-taldearen arabera.

TALDEA	KOPURUAK	BATEZBESTEKOA	BARIANTZA
Teknikoak	20	200	400
Berezituak	100	120	49
Administratiboak	40	100	25

1. Enpresa osoko batezbesteko soldata eta soldaten bariantza kalkulatu.
2. Zein da soldata sakabanatuenak dituen taldea?
3. 1992.ko soldatak finkatzerakoan hiru proposamen aurkeztu dira:
  - Soldata guztiak %5 igotzea.
  - Soldata guztiak 5.500 pezeta igotzea.
  - Teknikoen soldatak %4 igotzea, langile berezituena %4 eta administratiboena %5,5.

- a) Hiru proposamen hauen ondorioz sortzen den batezbesteko soldata orokorra kalkulatu.
- b) Zein da enpresa osoko soldaten sakabanatzea gehien murrizten duen proposamena?

### BIGARREN EBAZKIZUNA

Etalde batean Heletak eta Eneko egiten dute lan. Heletak kiwiak hazteko fosfatozko ongari berri baten eraginkortasuna egiaztatzeko hainbat saiakuntza egin du azken hamar urteotan ongari-kopurua aldatuz. Datu hauek erregresio-teknikaren bitartez aztertu eta ondoko emaitzak lortu ditu:

$$\hat{K} = 550 + 12,6 \times F \quad r_{kf} = 0,91$$

K : kiwi-ekoizpena hektarako (unitatetan)  
F : ongari-kopurua hektarako (kg.tan)

Heletaren iritziz oso probetxugarria izango litzateke ongari berria erabiltzea, aurreko emaitzak ikusirik. Emaitza horiek interpretatu itzazu (erregresio-zuzena eta koerlazio-koefizientea). Eneko ez da emaitzekin gehiegi fido eta datuak sakonago aztertu ditu. Hauek dira lortu dituen emaitzak:

$$\hat{K} = 502 + 2,6 \times F + 48,9 \times E \quad r_{ef} = 0,94$$
$$r_{ke} = 0,96$$

E : euri-kopurua Maiatzetik Urrira bitartean (cm.tan)

Fosfato-kiloak 50 pzta. balio du. Kiwi bakoitza 25 pzta.tan saltzen da. Errentagarria al da fosfatoa erabiltzea?

Fosfatoak gehitu egiten al du kiwi-ekoizpena? Fosfato eta kiwi-ekoizpenaren arteko erlazioa sendoa al da?

Enekoren iritziz, hazkuntza fosfatoan oinarrituz planifikatzea oker handia litzateke. Arrazoirik al du? Zergatik? 500 kg. fosfato zabaldu nahi ditu Heletak datorren urterako 5 hektarako soro batean. Saiakuntzetan 300 kg. erabili dira gehienera. Zenbateko kiwi-ekoizpena aurrikusten duzu? Aurrikuspen egokia al da? Zergatik?